

Herriko kontseiluaren 2015/03/25eko bilkura

Hastapena : 19:15

Hor zirenak : Jean-Michel Coscarat, Antton Curutcharry, Lisa Dumoulin, Daniel Ithurburua, Frantxo Mocho, Annie Juantorena, Betti Olçomendy, Monika Indart, Eñaut Larre, Jean-Baptiste Lambert, Marie-Baptiste Etcheverry, Dominique Mendibil, Christelle Errecart.

Ezin jina jakinarazi zutenak : Marie-Agnès Haristoy (ahalordea Jean-Michel Coscarati emanik), Agnès Gorostiague, Bernadette Mousquès (ahalordea Annie Juantorenenari emanik), Betti Olçomendy (ahalordea Sébastien Clauzeli emanik), Betti Bidart, Isabelle Arangoits.

Gai zerrenda :

1. Traktore baten erostea : Eskaintza deialdien komisioak 5 dossier ukan ditu ikertzeko. Ondokoak ziren hautagaiak : Motoculture Basco-Béarnaise (81 500€, abiadura aldagailu robotizatua), Ets Lendre (81 700€, abiadura aldagailu robotizatua), Chiquirin (67 000€ bainan ez da deskripzio teknikoaren araberakoa), Ets Gassuan (76 000€ bainan ez da deskripzio teknikoaren araberakoa) eta Comptoir Agricole Basque (76 390€). Motoculture Basco-Béarnaise da finkatu eskakizun guzietan ihardesten deena.

Herriko kontseiluak aho batez bozkaten du Motoculture Basco-Béarnaise hautatzearen alde.

2. Trinketeko obrak : Debis desberdinak presentatuak dira. Herriko kontseiluak ondoko enpresen alde bozkaten du : Herlax 12 960 € ; ohoiez estaltzea : Nafarroa Service 12 040 € ; teilatu egitura : Zurgintza 14 299 € ; tindu lanak : Alfaro peintures 5185€ ; teilatuko iturgintza : Zurlan 5808 €. Lanak 50 292€ gostako dira.

Lanak heldu diren egunetan hasten ahalko dira.

Bukaera : 20:00